

UDAL-LOKALAK ETA -ESPASIOAK ERABILTZEGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA

1. araua

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan jasotako baimenaren babesean.

Ordaintzeko betebeharra

2. artikulua.- Prezio publikoa ordaintzeko betebeharra baimendutako erabilera hasten denean sortzen da, eta, arau honetan aurreikusitako kasuetan izan ezik, prezio publikoaren zenbatekoa gordailuan utzi beharko da erabilera baino bi egun lehenago.

Interesdunak erabiltzeari uko egiten ahalko dio kasuan kasuko ekitaldirako ezarritako data baino 24 ordu lehenago, eta kasu horretan gordailuan ordaindutako prezio publikoaren % 50 itzuliko zaio.

3. artikulua.- 1) Calderería kaleko aretoa erabiltzeko baimena emanen da, betiere, Alor eskudunak kudeatutako erabileren egutegia kontuan hartuta, aurretik gordailurik jarri beharrik gabe, eta eskaera egin beharko da ekitaldia noiz hasi eta gutxienez bost egun lehenago.

2) CoWork gunearen erabilera baimenduko da ezarritako baimen-irizpideekin bat eta urtero onesten den baldintza-agiriarekin bat.

CoWork gunea erabiltzeko prezio publikoa hilabetez hilabete ordainduko da, betiere hilekoak osorik eta aurrez ordaindu behar direla, banku-helbideratzearen bidez. Ordainagiria hilabete bakoitzeko lehen hamar egunen barruan igorriko zaio dagokion ebazpenean postu bat erabiltzeko baimena ematen zaion pertsona fisikoari edo juridikoari. Postu bat erabiltzeko eskaera bi pertsona fisikok edo gehiagok egiten duten kasuan, ebazpenean eta helbideratze-eskaeran jasota dagoenaren izenean igorriko da ordainagiria, ezertan eragotzi gabe horrek gainerakoei jasanaraztea dagokien parte.

Hasierako edo amaierako ordainketa ez badator bat hilabete naturalarekin, egun naturalak hainbanatuz kalkulatu da.

Postua erabiltzeari epea amaitu baino lehenago utziz gero, erabiltzaileak dagokion ordainagiriaren parte proportzionala itzultzeko eskatzen ahalko du.

Erabiltzailearen egoera ekonomikoak aukera ematen badio tarifen eranskinen V. epigrafean aurreikusitako murriztapen bati heltzeko, prezio publikoa berrikusteko eskatzen ahalko zaio Merkataritza Zerbitzuari. Aplikagarri den prezio berria murriztapena zein hilabetetan aitortu eta horren hurrengo ordainagirian aplikatuko da.

4. artikulua.- 1) Udalak arau honetan aipatzen diren lokalak eta gunek erabiltzeko baimena nori ematen dion, harek du prezio publikoa ordaintzeko betebeharra.

2) Honako hauek ez dute prezio publikoa ordaindu beharrik irabazi-asmorik gabeko jarduerak egiteagatik:

a) Administrazio publikoak eta bere helburuak betetzeko haiek sorturiko entitate juridikoak.

b) Haien estatutuetan helburu gisa honako hauen interesak defendatu eta sustatzea jasota dituzten fundazioek eta elkarteek: beren baitan beste pertsonak hartzen dituzten familienak zein familia horiek hartutako pertsonenak, terrorismo-ekintzak edo genero-indarkeria pairatu dituzten biktimenak, bai eta Giza Eskubideen defentsa eta sustapena –eta halakoen artean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna– dituztenak ere.

3) Ez da prezio publikorik ordaindu beharko Calderería kaleko ekitaldi-aretoa erabiltzearen truke ez Partaidetzako Baliabide Zentroak antolatutako ekitaldietarako ez zentro horrek gizarte-sareari eskaintzen dizkion baliabideen parte gisara programatutakoak egiteko.

4) 4) Fundazioek eta elkarteek ez dute prezio publikoa ordainduko, baldin eta haien helburuek kulturarekin zerikusia izan eta kultur jarduera herritarrei irekia eta irabazi asmorik gabea egiten badute Ziudadelako Arma Aretoaren behean edo Caldereríako aretoan.

Erabilera

5. artikulua.- 1) Betiere, lagatzeko ezinbesteko baldintza dira hala Iruñeko Udalak erabili behar ez izatea eskatutako udal-lokala edo -espazioa nola prezio publikoa ordaindu izana, halakorik galdatzekoa denean.

2) Baimenean beste zenbait baldintza ezartzen ahalko dira, udal-lokal edo -espazioen lagapenari buruz, besteak beste eskatzaileak berme nahikoa eratzeko betebeharra, gerta daitezkeen kalteen edo gainerako baldintzak ez betetzearen aurrean erantzuteko. Hala gordailua itzultzeko nola hura erantzukizunei aplikatzeko, txostena egin beharko da aurrez, erabili diren lokalak nola gelditu diren azalduta.

3) Pertsona fisiko edo entitate eskatzaileek egunean eduki behar dituzte zerga- eta lege-betebeharrak, haien izaeraren arabera dagozkienak, edo/eta aginduzko agiriak aurkeztu Udalak hala eskaturik.

6. artikulua.- Jaieguntzat hartuko dira Udal honetako langileen lan-egutegian halakotzat ezartzen direnak.

Tarifak

7. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak arau honen eranskinean daude jasota, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

8. artikulua.- Arau honen tarifa-eranskinaren V. epigrafean jasotako murriztapenak honako arau hauen arabera aplikatuko dira:

Murriztapenei heldu nahi dieten eskatzaileek agerrarazi beharko dute baldintzak betetzen dituztela ezarritako epean, hori egiaztatzeko agiriak nahitaez aurkeztuta, artikulua honetan adierazitakoarekin bat. Alor kudeatzaileak ezarritako kasuetan non posible baita ofizioz egiaztatzea, eskatzaileak betekizuna egiaztatzeko aurkeztu behar duen agiriaren ordean egiaztapen horretarako behar den baimena aurkeztuko du.

Egiaztatzeko agiriak:

- a) Murriztapena familia ugaria izateagatik jasotzeko, familia ugariko titulua, betiere familia ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean –zeina maiatzaren 18ko 6/2005 Foru Legeak aldatu baitzuen– ezarritako definizioarekin bat. Murriztapena familia gurasobakarrei aplikatzeko, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legeak ezarritako definizio eta arautzearekin bat, familia gurasobakarreko titulua.
- b) Murriztapena familia-unitatearen diru-sarrerak direla medio jasotzeko, familia-unitateko kideek urtean jasotako diru-sarrera gordinen aitorpen justifikatua eta PFEZa egiteko betebeharra duten kideen zerga horren gaineko aitorpena edo likidazioa, eskaera noiz egin eta jada data horretan aurkezteko epea amaiturik duen ekitaldiari dagokiona. Betebeharririk ez badago PFEZaren gaineko aitorpenik egiteko, datu fiskaletan jasotako diru-sarrera gordin eguneratuak hartuko dira kontuan.
- c) Murriztapena desgaitasuna dela medio jasotzeko, agiri ofizial bat, non jasoko baita eskatzaileak % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duela, edo ezintasun iraunkorra zein baliaezintasuna direla bide administrazio publikoen diru-prestazioak jasotzearen gaineko egiaztapena.
- d) Murriztapena terrorismo-ekintzen biktima izateagatik jasotzeko, biktima-izaera aitortzen duen administrazio-ebazpena edo epaia, eta biktima batekin ahaidetasun-harremanik izanez gero, hori egiaztatzen duen agiria.
- e) Murriztapena genero-indarkeriaren biktima izateagatik jasotzeko, hori aitortzen duen epaia, eta biktima batekin ahaidetasun-harremanik izanez gero, hori egiaztatzen duen agiria.

3) Zehaztapenak, familia-unitatearen diru-sarrerak direla medio jasotzekoak diren murriztapenentarako:

a) Familia-unitatea: Prezio publikoa kalkulatzeko, PFEZaren gaineko indarra duten arauetan xedatutako familia-unitatea hartuko da aintzat.

b) Errenta: PFEZaren gaineko aitorpena edo likidazioa egiteko betebeharra duten familia-unitateko kideen azken aitorpena edo likidazioa –eskaera noiz egin eta data horretan jada aurkezteko epea amaiturik duen ekitaldiari dagokiona– hartu, eta haren zerga-oinarriaren parte orokorra eta aurrezkiaren likidazio-oinarri berezia batuko dira, eta emaitzari salbuetsitako prestazioen edo errenten zenbatekoa gehituko zaio. Ez dira salbuetsitako prestazio edo errentatzat hartuko Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak (PAGNA) mendekotasuna duten pertsonak familia-ingurunean zaintzeko emandako laguntzak, baldin eta zaintza horiek familiakoek edo profesionalak ematen badituzte.

c) Errenta garbia: errenta garbia kalkulatzeko, aurreko apartatuan zehaztutako errentaren eta gastu kengarrien diferentzia hartuko da kontuan.

d) Gastu kengarriak. Errentari dagokion ekitaldian ordaindutako zenbatekoak, jarraian adierazitako kontzeptuengatik:

1. Ohiko etxebizitzako gastuak (muga: 4.800 € urteko), honako kontzeptu hauek batuta:

- Ohiko etxebizitzaren, apartamentu babestu publiko baten edo antzeko beste zerbaiten alokairua.
- Ohiko etxebizitza erosteko maileguaren amortizazioa.
- Ohiko etxebizitza egokitzeko edo birgaitzeko lanek sortutako gastuak, pertsonen behar soziosanitarioengatik edo eraikinak jasangarriago bilakatzeko beharengatik.

2. Langileak kontratatutako gastuak gizarte- eta osasun-egoera dela medio halakorik behar duten pertsonak beren etxeetan jarraitu dezaten arreta pertsonala jasotzen, betiere hori guztia frogatzeko modukoa izanda, dela mendekotasuna aitortzeko ebazpen baten bidez, dela Udaleko gizarte-zerbitzuek egindako txosten baten bidez (muga: 8.400 € urteko).

Gastu kengarria ezartzeko, hala badagokio, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak (PAGNA) mendekotasuna duten pertsonak familia-ingurunean zaintzeko kobratutako laguntzak kenduko dira. Kenkari horri heltzeko, kontratatutako pertsonaren kontratua eta Gizarte Segurantzako alta aurkeztu beharko dira.

3. Eguneko zentroetako egonaldi-gastuak (muga: 4.800 € urteko) edo egoitza geriatrikoetako egonaldi-gastuak (muga: 12.000 € urteko).

4. Pentsio konpentsatzaileak: epai judizialean jasotakoak. (Bakarrik aplikatzen ahal da PFEZaren aitorpenaren zerga-oinarritik errenta kalkulatu ez den kasuetan).

TARIFA-ERANSKINA

I. EPIGRAFEA.- CALDERERIA KALEAREN 11KO ARETOAREN, DESCALZOS KALEAREN 56KO ERABILERA ANITZEKO ARETOAREN ETA AUTOBUS-GELTOKI ZAHARRAREN EDO ANTZEKO OKALEN ERABILERA, AGUR ZIBILETARAKO ERABILERAK BARNE:	
- 3 ordu edo gutxiagoko lagapena, egunean	66,40 euro
- 3 ordutik 6ra bitarteko lagapena, egunean	114,50 euro
- 6 ordutik gorako lagapena, egunean	167,03 euro
Ostalaritza-erabileretarako lagapena egunean	167,03 euro

II. EPIGRAFEA.- MURRIZTAPENAK CALDERERIA KALEAREN 11. ZENBAKIKO ARETOA EDO ANTZEKO ARETOAK ERABILTZEAGATIK:	
II.1.- Lokala gutxienez 5 egunez erabiltzen bada jarraian	% 20
II.2.- Lokala gutxienez 7 egunez jarraian erabiltzen bada	% 30
II.3.- Lokala erabiltzen bada herritarren auzo-elkarteei, gizarte-eskubideak sustatu eta eskubide horien alde lanean ari diren elkarte eta kolektiboek zein merkataritza- eta turismo-arloko elkarteei Udalak baimendutako jarduerak egiteko, irabazi-asmorik gabe.	% 75

III. EPIGRAFEA.- ZIUDADELAKO ARMA ARETOAREN ERABILERA (BEHEKO SOLAIRUA)	
- 3 ordu edo gutxiagoko lagapena, egunean	153,00 euro
- 3 ordutik 6ra bitarteko lagapena, egunean	306,00 euro
- 6 ordutik gorako lagapena, egunean	612,00 euro
Lokala jarraian gutxienez 2 egunez erabiltzen bada, honako murriztapen hau egingen da:	% 20
Jaiegunetan edo 21:00etatik aurrera erabiltzen bada, prezio publikoari honako gehikuntza hau aplikatuko zaio:	% 20

IV. EPIGRAFEA.- AUTOBUS-GELTOKI ZAHARREKO NASEN ERABILERA:	
IV.1.- Baimen bakoitzeko	21,29 euro
IV.2.- Ostalaritza-jardueretarako erabilera, metro koadro eta eguneko	5,71 euro
IV.3.- Beste jardueretarako erabilera, hamar metro koadroko egunean	0,92 euro
Garapenaren aldeko Gobernu Kanpoko Erakundeek prezioaren % 100eko murriztapena edukiko dute, baldin eta haien diru-sarrerak erabiltzen badira baimena zein jardueretarako eskatu eta horren gastuak estaltzeko edo justifikaturik badago erakundearen berezko xedeetarako erabiliko direla.	

V. EPIGRAFEA. COWORK GUNEAREN ERABILERA	
V.I.- CoWork gunearen erabilera. Postu bakoitzeko	127,50 euro hilean
V.II.- Murriztapenak:	
V.2.1.- Honako hauek edukiko dute zenbatekoaren % 50eko murriztapena: a) Familia ugarikoen, guraso bakarrekoen eta harrera-familien kideak, baita harrera-egoeratik datozen edo harrera-egoeran dauden 25 urtetik beherakoak ere (harrera hori familia batean zein egoitza batean izan). b) % 33ko desgaitasuna edo handiagoa legez aitortuta duten pertsonak. c) Terrorismoaren biktima-izaera epai edo administrazio-ebazpen baten bitartez aitortua duten pertsonak, beren gurasoak, seme-alabak eta ezkontideak edo bikotekide egonkorak. d) Etxeko eremuan gauzatutako genero-indarkeria fisikoaren edo psikikoaren delituaren biktima, epai baten bitartez aitortua, beren gurasoak, seme-alabak eta ezkontideak eta ezkontide edo bikotekide egonkorak – betiere epaiak ez baditu jo delituaren erantzule kriminalak–. Epigrafe honetan ezarritako murriztapen bat baino gehiago jasotzeko eskubiderik edukiz gero, murriztapenak ezinen dira metatu.	
V.2.2.- Zenbatekoaren % 10eko murriztapena edukiko dute 30 urtetik beherakoek eta langabetuek. Murriztapen hau ez da metagarria izanen beste beharpen bat jasotzeko eskubidea izanez gero.	
V.2.3.- Familia-unitatearen diru-sarrerak direla medio:	Murriztapen-ehunekoa
Gizarteratze Errentaren ≤ % 100	% 90
Gizarteratze Errentaren ≤ % 200	% 50
GE: Gizarteratze Errenta edo hori ordeztu dezakeen adinako laguntza bermatua.	
V.2.1 eta V.2.3 epigrafeetako murriztapenak elkarrekin bateraezinak dira, eta metaezinak.	